

# BERMEO ETA EZIZENAK<sup>1</sup>

## *Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra*

Guk, bermeotar zaharrok, ezagutu ditugu geure gazte aldian, portuan atunetarako txalupak, eta baita ere euron ibilerak; nondik eta nora atun bila ibiltzen ziren gure Kantauri itsas golko barruan, hemendik irten barik, ez gaur egun irteten diren moduan itsaso handietara. Behetik, bazen atuna, Santander, Santoña, Laredo edo Kastro Urdialesen saltzen zuten euren arraina, eta goitik bazen, Mutriku, Ondarrun, Lekeition edo Bermeon. Holantxe ezagutu ditugu gure arrantzale bulartsuak, urte askotan, kai ondoan atunak ateratzen eta bentapera gero marmitakoak egiten; eta gu eurei begira usain gozoa hartzen.

Bazegoen, bada, holako egun baten Lekeitiar txalupa bat kai ondoan atunak atera, garbitu eta zeozer konpontzen (belak eta sokak) ari zirela. Baina barruko gizon batek “Soroetxean” zuela senide arteko edo lehengusuren bat: Nikomeres ikusteko gogo bizian, patroiarri esan zion, eta honek baietza eman ez agindu zion, bide batez, olana edo belaki honen besteko bat erosi zezala dendaren baten.

Ez zekien arrantzale honek Soroetxeko bidea. Baina handik, kofradia ingurutik, <<Obispo>> aguazila igaro zen, eta beste askoren artean, han zegoen batek esan zion <<Obispok erakutsi diezaiola gizon honi zein bide hartu hara gora igotzeko; eta horrela arduratuta ipini zuten bidean esanez.

Igo Torrentoretik gora, eta zuzen-zuzen hantxe goian ikusiko duzu etxe handi bat, eta bertan atarian atezain dago ,Pablo <<Dios>>, eta sartzeko baimena berari eskatu.

Ondo hartu zuen, eta horrela erizain horrek eraman zuen bere senide arteko Nikomeroengana, hori ikustera eta berarekin egotera. Honekin zeuden bitartean, han batu zitzaizkion, euliak gozotan batzen diren antzera, hainbat gaixo, gehienak zigarroa eskatzen. Batak esaten zion <<San Pedro>> Deustuko santua zela, besteak Markinako Onaindia botikariaren semea zela; eta beste batek, dio, bera zela Jesukristo Bariku Santu egunean Markinan prozesioan eramaten dutena.

Gauza gehiago entzun eta ikusi baino... agur egin denari eta irten ziren eskerrak emanik Pablo <<Dios>> atezainari, esanez ia handik laster ba ote zegoen dendaren bat olana zati bat erosteko.

- Baietz –esan zion honek-. Zoaz hortik behera, Plazara, eta itaundu Martin <<Jaungoiko>>ren denda, plaza barrenean, eta han aurkituko duzu behar duzuna.

Gizon hau arduratuta zihoan; berari ere ez ote duten nahastuko halako santuen izenen batekin.

Batari eta besteari itaunduta jo zuen Martin <<Jaungoiko>>ren dendara. Hemen hartu zuen olana zati hori, irten hemendik eta alboan zegoen Martzelino <<Mutriko>>ren ogitegian erosi koxkordun bero-bero handi bat, eta bidea hartu txaluparako.

Heldu zen gizon hau barreka-barreka txalupa aurrera. Orain badinotzo lehorrean zegoenak:

- Har ezazu hau, eta ekarri behera ardoa urrunera joan barik, hortik behetik ardaotegiren bat aurkituko duzu eta.

Badoa gure gizon hau eta lameran sartu baino ez, non ikusten duen <<Obispo>> aguazila. Zuzendu berarengana eta galdetzen dio tabernarik ba ote zegoen handik urre.

- Bai gizona –erantzun honek. Hemendik ikusten duzun kale bitartean hantxe bertan <<Jaungoikoa>> deitzen duten taberna; beste alboan <<Aita Santua>> taberna, eta bestea ezkerretara <<Kristo>>ren taberna. Ez daukazu galtzerik. Taberna guztietan duzu ardo ona, batez ere <<Jaungoikoarenean>>.

(1) Zabalak, 1964an, 1842 ezizen bildu zituen Bermeon.

**Anton Erkoreka**

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000